

Gizarte Zientziak eta Hezkuntza

1. Oinarrizko datuak

- **Modulua:** Espezifikoa I
- **Izaera:** Hautazkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Amaia Álvarez Berastegi

2. Ikasgaiaren azalpena eta testuingurua

Ikasgai honetan Gizarte Zientziak eta Hezkuntza lotzeko oinarriak aztertuko ditugu. Etorkizuneko irakasleak Gizarte Zientzien alorrean lan egiteko prestatzeko, aspektu teoriko eta pedagogikoen gakoak ikasiko ditugu. Era berean, oinarri teoriko horiek praktikan jartzeko hainbat jarduera egingo ditugu.

Guztira, hiru gai landuko ditugu. Lehen gaian Gizarte Zientzien oinarrien funtsari helduko diogu. Gizarte Zientziak zer diren definituko dugu, diziplinartekotasunaren garrantzia nabarmenduko dugu eta, azkenik, hezkuntza curriculumen atzean dauden oinarri epistemologiko nagusiak jorratuko ditugu. Bigarren gaian hezkuntza curriculumaren gako nagusiak aztertuko ditugu Gizarte Zientzien ikuspegitik, landu berri duzue Testuinguruak irakasgaiarekin lotura eginez. Hirugarren gaian, aldiz, gaur egungo gizarteak dituen erronka batzuen inguruko hausnarketa egingo dugu.

3. Konpetentziak

- Giza eta Gizarte Zientzien irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren garapen praktikoak ezagutzea.
- Giza eta Gizarte Zientzietako curriculumak hezkuntza-programa bihurtzea.
- Gizarte-zientzien arloan hezkuntza-materialak hautatu eta prestatzeko irizpideak barneratzea.
- Ikasketa erraztu eta ikasleen ekarpenak aintzat hartuko dituen giroa sustatzea.
- Ikus-entzunezko eta multimedia komunikazioko prestakuntza irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan txertatzea.

4. Ikas-eremak

Gizarte Zientziak zer diren aztertzea.

- Gizarte Zientziak biltzen dituen diziplinak identifikatzen jakitea eta horien arteko loturen garrantzia ulertzea.
- Hezkuntza sistemak oinarrian dituen abiapuntu epistemologikoak ulertzea.
- Hezkuntzak eta boterearen arteko lotura azaltzea.

Gizarte Zientzien curriculumak ezagutzea.

- Gizarte Zientzien alorra Hezkuntza curriculumen baitan kokatzen dela ulertzea.
- Gizarte Zientzien curriculumen oinarri pedagogikoak aztertzeke gai izatea.
- Hezkuntza curriculumak definitzen jakitea eta EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko curriculumei lotuta dauden marko juridiko orokorrak ezagutzea.

Gizartearen gaur egungo erronkak ikasi eta lantzea.

- Gizarte Zientzien irakaskuntzak gaur egungo gaiekin izan behar duen lotura ulertzea.
- Gaur egungo gizarte globalizatuari buruzko erronkei buruz hausnartzea eta horiei lotuta ikasgelan sortu daitezkeen arazoak eta aukerak aztertzea.

5. Edukiak

- Gizarte zientzien definizioa.
- Hezkuntza sistemaren oinarri epistemologiakoak.
- Hezkuntza curriculumen diseinu pedagogikoaren ulermena.
- Gizarte Zientzien irakaskuntzak gizartearen formarekin daukan lotura eta gaur egungo mundu globalizatuan ditugun gai nagusiak.

6. Metodologia

Ikasgaiak **ikaskuntza autonomo eta esanguratsua** bultzatuko du **metodologia aktibo** baten bidez, eta UEUren online ikas-irakaskuntzarako eredu pedagogikoan oinarrituko da. Alderdi teorikoa eta praktikoa uztartuko ditu, arreta ikaskuntza-prozesuan eta konpetentzietan jartzeko.

7. Tutoretza

Tutoretza-saioen helburua ikasgaiaren inguruko zalantzak argitzea izango da. Bideo-bilera sinkronoak izango dira, eta, ikasgaiak irauten duen bitartean, bi egingo dira gutxienez. Saioen egunak eta ordutegia irakasleak proposatuko ditu Ikasgela Birtualean.

8. Ebaluazioa

Ikasgaien ebaluazioa jarraitua eta hezitzailea izango da. Kalifikazioetarako, gai bakoitzeko zereginak, azken produktua eta parte-hartzea baloratuko dira. Ikasketa-prozesuan zehar eginiko hausnarketa pertsonalei eta talde-dinamikan eginiko ekarpenei ere garrantzia emango zaie.

9. Bibliografia

- Alanis, L. (1999). "Educar para la complejidad: contenidos de enseñanza y movimientos sociales. La influencia de la sociedad civil en el curriculum de ciencias sociale". AAVV El Currículum de Ciencias Sociales para el Siglo XXI Qué contenidos y para qué. Universidad de La Rioja, Diada Editora.
- Albacete García, C., Delgado Cortada, C. eta Cárdenas, I. (2000): «Enseñar y Aprender la Democracia». Madril, Síntesis.
- Argibay, M.; Celorio, G.; Celorio, J.J. (2009) *Educación para la Ciudadanía Global. Debates y Desafíos*, Bilbo, UPV/EHU-Hegoa.
- Bart, J.L.; Shermis, S.S. (1990) "Una definición de los estudios sociales: Análisis de Tres planteamientos", Boletín de Didáctica de las Ciencias Sociales, 2, 25-40.
- Capel, H. (1997) "La Didáctica de las Ciencias Sociales en la Educación Básica Española. Una tesis doctoral sobre el Diseño Curricular de Ciencias Sociales en la Educación Secundaria Obligatoria", Biblio 3W. Revista Bibliográfica de Geografía y Ciencias Sociales Universidad de Barcelona, 49 zbk.
- Celorio, G.; Lopez de Munain, A. (Coords.) (2011) *Educación para la ciudadanía global. Estrategias de acción educativa*. Bilbo, UPV/EHU-Hegoa.
- De Alba Fernández, N., García Pérez, F. eta Santisteban Fernández, A. (2012): «Educar para la participación ciudadana en la enseñanza de las Ciencias Sociales. Volumen I». Asociación Universitaria de Profesorado de Didáctica de las Ciencias Sociales. Sevilla, Díada.
- Eguskiza Samos, A.; Rio Martinez, A. del (2010) *Reivindicaciones Feministas para una Ciudadanía Transformadora*. Bilbo, UPV/EHU-Hegoa.
- Gudynas, E. (2011) *Buen Vivir: Germinando alternativas al desarrollo*: Separata: Destakes del FSM 2011. Quito, Alai.
- Liceras, A. (2004) "La investigación sobre formación del profesorado en Didáctica de las Ciencias Sociales" Profesorado, revista de currículum y formación del profesorado, 8 (1).
- Mainer, J.; Mateos, J. (2007) "Los inciertos frutos de una ilusionada siembra. La JAE y la Didáctica de las Ciencias Sociales", Revista de Educación, zenbaki berezia, 191-214.
- Lester, Benjamin T., Ma, Li, Lee, Okhee eta Lambert, Julie (2006). "Social Activism in Elementary Science Education: A science, technology, and society approach to teach global warming, International Journal of Science Education", International Journal of Science Education, 28, 4, 315-339.
- Pagès, Joan (2002): "Aprender a enseñar historia y ciencias sociales: el currículo y la didáctica de las ciencias sociales". Revista de Investigación Educativa Latinoamericana, 30 (1), 255-269.
- Viveros Vigoya, M. (2016). "La interseccionalidad: una aproximación situada a la dominación". Debate Feminista, 52, 1-17.
- Mellado Jiménez, Vicente; Borrachero, A. Belén; Brígido, María; Melo, Lina V.; Dávila, M. Antonia; Cañada, Florentina (2014). «Las emociones en la enseñanza de las ciencias». *Enseñanza de las ciencias: revista de investigación y experiencias didácticas*, 2014, Vol. 32, n.º 3, pp. 11-36
- Sablic, M., Miroslavljivic, A. eta Labak, I. (2021). Students' motivation in natural science classes. Human, Technologies and Quality of Education, pp. 635-642.

<https://www.goi-institutua.eus>



- : goimailako
- : online
- : institutua

Vado, Y. (2022). Zientzia ikasteko orduan ikaslearen motibazioak duen eragina. Motibazioa emaendatuko duen proposamen didaktiko baten diseinua (Master Amaierako Lana). GOI-UPV/EHU.